LEGASA-1528. Proceso de separación y desmembración de la parroquial de Legasa, dedicada a Sta. Leocadia y más tarde a Sta. Catalina, que pertenecía a la de S. Pedro de Santesteban, ambas del obispado de Bayona. Por Bulas apostólicas, se nombra una comisión de árbitros, que rechaza completamente la separación; apelan los de Legasa y el Prior de la Catedral decreta la desmembración. Entre los motivos aducidos en la petición de Legasa, está la de ser distintos bandos, pues ellos eran agramonteses y los de Santesteban beaumonteses; a causa de esto, hubo muchas muertes, y numerosos vecinos de Legasa nose atrevían a ir a Santesteban a los divinos oficios. Testigos. (Tomo1-555).

**ASTAITZ**
2003-6-20


LEITZAKO INGURUTXOA

# Leitzetik Andoain'eranoko oiñezko ibillia-ibiltza

## LEENENGO ATALA

Irakurle zaitudan adiskidea; gaurko nere idazkun aldia erri bi auen artean, diren edo nik beintzat, ezagutzen dittuten parajeak, etxeak, baserriak, bordak, zubiak eta zenbait errekatara lotuta eta uztartuta izanen dittuzu.

Leen izana zen eta neronek ezagutu nuen trenbidea, burnikari bidea izan zenaren barrena.

Ogeigarren gizaldia bukatzerako'aiñoxe lanean bizkorki, buru belarri aritu ziren ospe aundi izan zuten zenbait burniolak: Urto, Plazaola, Ameraun, Olloki eta abar.

Ni, gazte mutila nintzalarikan, Leitzaran errekari, Leitzaungo erreka esaten nioan eta baita Berastegi eta Elduaindarrek ere. Berueteko, Oreinorin goimendi batek, sortzera ematen dio Leitzaran izenarekin ezaguna degun erreka oni.

Erreka onek daramazkin urak beste zenbait erreka kozkorren arteko urekin ornituta eta oparatuta izanika. Auetako bakarraren bat aaztuxe izatea balitteke baiñan leenengo kilometroak errekaren urak egiterakoxe, auek dittuzu, irakurle: Gorriztaran, Areso, Franki eta Lordiz...

Leentxexeago aipatu dedan Leitzaran errekaren urak, burniolek zittuzten triki-maillu eta gaiñantzeko tresne guztiak mugirazitten zituen. Nere gaurko idazkunari zentzu egokia eman naiez banoa...

Leitzeko erriak "Plazaola" zeritzan trenaren geltoki bat bazuen. Ba ementxetik abiaturik kilometro gutxira "Areso" zeritzan tren-apeaderoa topatuko genuen. Emengo ikusialdia egin-eta "Plazaola" zeritzan geltoki batera abiatuko giñen. Geltoki onek bazittuen –neronek ikusi eta ezagutuak-ainbat genero gaiak jaso aal izateko almazenak; emen ardo-kupelak, batipat jasotzen ziren gero, inguruetako erri kozkorretara karretuak aal izateko.

Plazaola auzoak geltokia izan ez-eze, badu baita ere gaur egun Mugika deritzan Tximistindar etxe kozkor bat; baserri aundi bat ere badu, bere ikuillu eta ganbaraz onik ornituak; iruzpa edo lauzpa famili bizi aal izateko banandua eta antolatua. Nik neronek, garai batean lau famili bizitzen ezagutu nittun, naiz eta gaur egun famili bat bakarrik bizi.

Plazaola Trenaren geltokia izan zen lekutik eskuiñ aldera metro batzuk aurrera joanikan, barruti bateko atakaren langa zabaldurik ikusi eta ikuittu ditzakegu Manuel Lasarte Bertsolari aundia jaio zen Frankiborda deritzen den Baserria.

Berastegiko erriarengan dauzkate auzo ontako bizi lagunek beraien eskarioak eta zergak zuzendu eta burutu bearrak.

Trenbidea izan zen bideari jarraituz, laister xamar "Bizkotz" deritzan esparruarekin aurkituko gera. Bizkotz au, garai batean, meatz lekua izan zen; ospe mardularen jabe izan zena aldi luze batean.

Meatz au, oraindik geldirik egon arren, ogeigarren gizaldiko leenengo urteetan garrantzi aundiaren jabea izan zen. Gure senide arteko 1936'ko gudakoan, aldi aaztukaitz artan alegia, alemanek,"Bizkotz" meatzlekuola onetan aritu aritu ziren meatzean, meatzgaia ateratzen.

Zein urtetan izan zen ziur ez naiz oroitzen, baiñan Leitzen alemanentzako lanean aritu ziren langilleak, oraindik, bizi direla baietz esango nuke.

Geroxeagoan, alemanek, meatzgaia ateratzeari uko egin zien.

Geroezkeroztik, Meatzlekuola geldirik dago. Meatzlekuola onek bazuen zuzeneko burnikarrillean ataka berezi bat beregan: ataka au zabaldurik zuzenean zetorkion su-gurdia (lokomotora) eta berarekin zekarzkian kargaontziak, burnikarrilletik saieskaturik ematen ziren artarako egokituta

zegoen karga-leku batera. Kargaontziak berriz beterik izanikan, zuzeneko burnikarrillera abiatzen zen. Onera sartu aal izateko erreztasun eta erosotasunez zearo egokittuta zegoen, ala bear da eta.

Meatz auen lurra-lekuen izateak Berastegiko erriari dagozkio.

¡Oarra! Ibiltza onen idatziari leenengo atala ekin diot.

## BIGARREN ATALA

Irakurle zaitudan adiskidea: atal au Bizkotz'etik Ameraunerañokoa izanen dezu. "Bizkotz" deritzen den paraje edo esparrutik abiatuko gera beerarruntz eta laister xamarrerako begien bista eskuñerantz saieskaturik, ikusi aal izanen degu Mustar deritzen den borda-baserria.

Baserri ontako bizi-familia ezagutu ez-eze aspertzerañoxeko solasetan aritua izandu nintzen. Geroxeagokoan Euskal kristau famili au Leitza errira bizitzera joan zen. Gaur egun ez dut uste iñortxo bizi izaten denikan Mustar-teilatupean.Irakurle, orain idatziko dizudana ere guztiz zillegi dala derizkiot: Mugika Familikoek, Plazaola auzoan duen Tximistindar etxe, ez eze, Ameraunruntz goazelarikan eta Leitzaungo errekaren ondo ondoan, ezkerraldean, badu beste bat eta esan bear famili onek duen aundina, paraje auetan.

Aurrera joan alean Ameraunzar deritzen zaion parajearekin topo eginen degu eta Lordiz deritzen den errekaren ur otsaren oiartzunak oartuaraziko gaitu, bai, orrelaxe dala, eta Lorditzko errekaren urek nola uztartzen diren Leitzaran errekarenarekin ikusi aal izanen degu.

Lorditz idatzi det bai, esparru au larrez eta oainez, arrats ornituriк zegoena zen orain dela gutxi arte. Berastegiko eta Elduaingo erriek dute bertako jabetasuna. Azienden pazcalekua: ardiak, azeriak eta basurdeak ba zittuzten abaroetzeko leku ederrik, bikaiñik.

Aziendarentzako bordak beraiei zegozkien barrotiak txukun eta zearo egokitasunez ornituriк ikusi aal zittezken. Berastegiko anitz baserri ziren emengo borden izatearen jabeak.

Gaur egun, esparru ontan azienden izateari zearo, arrats murriztua edo gutxitua ikusi aal dittekeena da. Piñua eta zenbait motatako zuaitzak, Jaundaerrege biurtzeraiño nagusitu dira Lorditzko paraje ontan, leengo araitz, pago, lizarra ziren ordezko.

Ameraunzar paraje utzirik eta aurrera goazelarikan kilometro bira gutxi asko iritxiko gara Berastegiko erriari dagokion eta ospetsu izan zen (gaur egun mailla apaltxegotsu den) auzo batera: Ameraun.

Irakurle: mendiko zuaitzak, beraien kasez, aalmenez isuritu eta sakabanatzen duten arnasgai eta usain garbi garbi orniturik dagoen esparruan, lekuan aurkitzen zera.

Gure gaztearoan, oraingo aldian ez dakit, paraje onek baserri aundi bat bazuen eta baserriko lanak ez-eze, ostatu bati dagokion lana, onik betetzen zekiena zen. Auzo au, arrats, zearo mendikoa dezu baiñan gaur egun antzu xamarra daukagu, bai horrelaxe da, baiño aaztu ezin, orain urte gutxiarte bereganako zuen erakarritasuna maittetasuna.

Berastegiko ainbat artzai, Leitzaungo bordeetara, larreetara, artzantza lanetara zijuaztenekoaldiak; aunitz gutxi izanen ziren baserri onetara sartu-atera edo diosala eman gabe geldittuko zirenik. Artzai esan det, bai, baiñan ez astuta utzirik, ainbat basolari, ikatzlari inguruetako oianetan sariduen lanak sosa atera nairik aritutakoak ere, maiz maiz iritxiko ziren, baserri ontara onek eskeintzen zuen

babesa, abaroa eta aunitz izaten omen ziren goizean eldu zen trenetik jeitxe eta Ameraunen egun pasa egin ondoren arratsaldeko trenean etxeratzen ziren gizakiak. Bai, zillegi egiten zait esan dedan guztia azpimarratzera.....

Auzo oni buruzko esan nai guztiaren izkribua ez det akittu. Emen, aldi artan, 6 famili bizi ziren, baserrikoak ere tarten izakinan, 30 bizi lagun guztira.

Aldi artako bizilagun batekin orain berriro alkarrengan solasean ari giñelarikan, neronek ere, batzu batzuek ezagutu nittuela esan nion, aipatutako guztiak ezpaere, geienek, geroxeago aipatuko dedan tximistindar ontan eguneroko ogia irabazten zuten, artzantzarako lanetan ere bai, apika, bat edo beste etxerako etekiña urbildu naiez.

Gaur egun berriz, auzo ontan bizi bizi inortxo ez, tximistindar etxeko arduraduna izatez izanen da beeraxeago idatziko dizudan bezala, biziarnasgaia esparru ontan artzenduna. Argi-indar etxe oni, "Gaztañondo" zeritzan gizaseme batek sortzera eman zion; gure gaztearoan eta oraintxe gutxiarteraño "Gaztañondoko zentrala" zeritzaion. Gaur egun berriz argi-indar etxe au Leitzeko papelerаren ardurapean dago eta esan didatenez papelerako langille batek, onen egin bearretaz arduratzen omen da.

Gaur egun "Ameraungo zentrala" deritzen zaio.

Tximistindar etxe onen trikimaillu guziek, orain esan oi den bezala "automatikoki" eran antolaturikan omen dauzka. Indar etxe onentzako urek, Ameraunzar deritzen den urpresaren esparrutik ure artu eta urkanalaren bidez indar etxeko bururaiño ure joaten zaio.

Urek, indar etxeko trikimaillu guztiei beraiei dagozkien lanak egin ondoren, ure berriz errekara doa; baiña ez alperrikakoan, ba oso metro gutxira beste ur presa batek berari datorkion ura, kanalean sartuarazi eta kanalen bidez ure Andoain'eraiño joango da...

## IRUGARREN ATALA

Irakurle: Leitzetik Andoainerañoko oiñezko III garrengo ibillialdiaren atalari idazteari eman diot.

Ameraundik Olloki auzoruntz leen izan zen trenbideko bidetik abiatu naiz. Eta aurrera noalarikan, km batzuk ezkeralderuntz zear iraganikan, begien bista zearkaturikan gurdibide bat ikusi aal izan dut eta au nora ote dijoan tentaldia izanikan dalako bideari ekin diot.

Bidean, eskuin eta ezker mendipaldak guzti guztiek oianak dira eta oraingo "Insignis" deritzen den piñu motaz ornituri k....Gure gaztearoan ezagutu ere ez genduan egiten,Bizkai aldean bai, noski. Gaur egun, berriz, bazter guztietara barraturik dauzkagu. Lurra edo barrutiaren jabeak ugazabak, alegia, piñu mota onen alde iraultzen dira eta beraien aburuaz, au diote: mendian edo beste edozein barrutietan piñu mota au landatu ezkero urte gutxiko biziren epean, leengo gureak ziren pago, aritz eta abarreko landaren ondoan , bizi, azi eta ornituz, salgai bidean makurkerik gabe egoki eta jator azaltzen omen direla...

Ala eta aurrera noalarikan, borda-baserri itxuraduen etxe batekin aurrez aurre topatu naiz, baita ere, etxe atarian zegoen giza-seme batekin . Gizon oni oitura onez, diosala emanikan itz solasari ekin diot eta leenengoz borda-etxearen izen deitura galde egin eta jatorki itz onez Uiziñe deritzen zaiola esan dit eta solasari isilune gabe etxe-bordaren nagusia eta borda bati dagozkion lan guztien arduraduna, bera dela esan dit, ori bai, familikoek lagun dittularikan. Ezkonduta izakio eta semealaben aitte dela.

Uiziñe, borda-baserri kozkor bat delarik, soro-lurrez, belardiak eta mota askotako aziendak, ardiak tartean izanik. Ikuillura jetxiarazi niñuan eta ganaduak ikusi aal izateko aukera izan nuen, ederrak eta agitz egokiak beraien ijarak... Ikusi eta beraren solasaren azken muiña entzun da, ondoren esandako guztia bete betean ala izanda ere, bere oiñarrizko ogi bidea Andoaingo lurretan kokaturik dagoen Hidroelektrikako tximista indarraren langilleetako bat dela, esan zidan.

Eta solasean jarraituz esan zidan, baita ere, Ameraun auzoaren azpian erreka bertan kokaturik dagoen ur-presari eldu-zaion ura, gero ur au kanaleratu bidez Andoaiñen Hidroelektrika olak duen tximista indar etxeko bururaiño onik eta eragozpenik gabe joan aal dadin lanaren bete bearra berari zegokiola.Beraz, egoki esanda ur kanalaren zaindaria.

Bitxikeriak diren edo ez diren onako beste auek ere esan zizkidan: Ameraun auzoa asieran duen urkanalak eta Andoaiñen bukatzen deneko oni 18km luze ba omen dittuela ¡ezta txantxetakoa, irakurle!. baita ere,indar etxe onek lanean argi indarraren frutua, "watioetan" ematen asi zenean, ireki, zabaldu alegia, Españiko lurretan ziren tximist-indar etxerik aundienetakoa zela...

Tximist-indar etxe oni, argi indarra ematako agindua noiztsu eman zien ez dakit, zenbait erakundeko agiritegi etxeetara jo bearko nuke, baiñan ori lortu aal izateko ez naiz gai...Irakurle zeran oni iskribuadar oni beste bitxikeri bat erantsi gabe ez naiz gozo eta banoa esatera: Hidroelektrikak, beeko ate inguruko ataritik asi eta goian ur kanala bukatzen den lekuraiño urek gainbera egiñen duen abazuloraiño, alegia, igo aal izateko, 999 eskailleraren mailleale oinperatu bear omen direla esan oi da; ez natzaizu txantxetan ari, betidanik ori esan izan zaigu...

Leendikan artuta neukan iskribuadarrari jarrai dezaiodan: Ameraundikan Andoain bitarteñorako ospelaldeko mendiek sortuarazten dittuen erreka aundi eta txikien ur ixuruek aalik eta egokien murgilarazi- bildu eta joan al dittezteen kanal aundirako lanbidea.

Ez zen arraiopola patxadako langintza, ez orixe, nerekin jolasean aritu zen kanal zaindari au.

¡Bada zerbait zaindari, Jauna, lan gaitze ziñetan!

Gurean geramakigun solasa akittu zear zelarikan gizalegeak agintzen duenez, alkarrenganengo eskuiñ eskueei muiñ eman bezain pronto zaindariaren emaztearen aotsaren oiartzuna entzun aal izan genuen eta senarrari esaten ziolarik indar-etxe aundiko telefonotik zetorkion albiste bat bazuela...

Bertako oiana ez eze begien bista ezker eskuiñaruntz joanalean ikusgai ziren ainbat paraje zoragarri.

Agur eta sarriarte Uiziñe eta nagusi jauna esan nuenean, abiatu nitzen...

Laugarren atala au izanen da: Olloki auzora eta beregan dittuen bitxikeriak. Orduraarte.......

**MIKONE`KO DEMETRIO`K**

# España etengabe erasoan

***Ezker Abertzalea instituzioetatik kanpo.*** Azken urteotan Estatu Espainiarra jo eta ke ari da Ezker Abertzalea suntsitu nahian. Erakunde guztiak legez kanpo utzi dizkio, erakunde horietako zuzendaritzako kideak gartzelara eraman ditu eta militanteei etengabeko pertsekuzioa egiten ari zaie. Erabateko jazarpen honen azken atala maiatzeko hauteskundeen inguruan eman da, Ezker Abertzalearen zerrendak lehia demokratikotik kanpo utzi dituelarik. Gehiegikeria horren ondorioz, aurrerantzean Ezker Abertzaleak ez du zinegotzirik izanen Hego Euskal Herriko udaletan, ez legebiltzarkiderik Iruñeko Parlamentuan eta ez batzarkiderik Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Batzar Nagusietan. Instituzioei dagokienez, eta hurrengo hauteskundeak bitarte soilik, Gasteizko Parlamentuan bakarrik mantendu ahal izanen du ordezkaritza lan egiteko moduan. Europako parlamentariak ere oraindik bolada batez jarraitzeko aukera izanen du.

***Zertarako bidali orain Ezker Abertzalea instituzioetatik?*** Estatu Espainiarrak Ezker Abertzalea mapa politikotik desager dadin nahi du eta bere egitasmo politikoa defendatzen ari diren herritarrak beste indar politikoetara (EAJ, EA, Aralar, IU, Batzarre...) hurbil daitezen. Independentzia zinez bultzatzen duen motorra suntsitu ezkero, Euskal Herriak bere buruaren jabe izateko dinamikak geldituko direlako ustean.

***Estatuaren biolentzia anitza.*** Estatua, PP-UPN eta PSOEren babesaz, indarkeriaz ari da baliatzen Ezker Abertzalea bidetik kentzeko. Bi alderdi horiek biolentzia mota guztiak ari dira erabiltzen (armatua, instituzionala, judiziala, komunikaziozkoa...) Biolentzia mota bat salatzen dutenak biolentzia mota guztiak ari dira erabiltzen Ezker Abertzalearen aurka.

***Estatuaren azken erasoaren porrota nabarmena.*** Maiatzeko hauteskundeak pasa dira eta Ezker Abertzaleak bizirik dirau, eta oso bizirik gainera. Legez kanpo utzitako hautagai zerrendek bildu dituzten 162.000 botoek argi utzi dute Estatuaren porrota: Ezker Abertzalearen jarraitzaileak ez dira sakabanatu. Nahiz borrokalarien aurka eten gabe erabili duen dezakeen errepresio basatiena. Nahiz alderdi politiko moderatuek behin eta berriz eskaintza erosoak egin dituzten haiek amuan erortzeko.

***Euskal Herrian arazo politiko handia dago.*** Egungo baldintza politikoei aurre egiteko prest dagoen jendetza Estatu Espainiarrak jasan lezakeena baino askoz ere handiagoa da. Pentsa litekeen egoera politiko gogorrenean bildutako 162.000 boto horiek Estatuak Euskal Herriarekin konpondu gabeko goi mailako arazo politikoa duela adierazten dute era ezin argiagoan. Askatasuna borrokatuz urte ugari daraman Ezker Abertzaleak babes sozial zabala duela erakusten dute.

***Leitzan Ezker Abertzaleak garaipen esanguratsua lortu du.*** Leitzari dagokionez, aurrez esandako guztia errepika genezake. Leitzan ere Ezker Abertzaleak babes sozial handia eskuratu baitu, lehen indar politikoa izanik berriz ere. Aurrez Aznar presidente espainiarra bera Leitzara etorria izan arren, goardia zibilak Ezker Abertzaleko militanteak etengabe ikaratzen ibili diren arren, Ezker Abertzaleko zinegotziei ez dietela udal batzarretan parte hartzen utziko jakin arren, alkate berria UPNkoa izateko arrisku handia zegoen arren... Ezker Abertzaleak bultzatzen duen proiektu politikoak jaso du boto kopururik handiena. Legez kanpo utzitako zerrenda argi eta garbi nagusitu da Leitzan, beste herri askotan bezala airean galdera zorrotz bat utzita: ze demokrazia mota da Ezker Abertzaleari ongi merezitako alkatetza gorrotoz kentzen diona? Bestela esanda, ze sinesgarritasuna merezi dute lapurreta horri bedeinkazioa ematen dioten Iruñeko eta Madrilgo gobernu eta instituzioek eta hauek eginiko legeek eta sistema osoak?

***Erronka nagusiak Leitzan.*** Leitzarren gehiengo sozial abertzaleak tinkotasuna erakutsi du. Askatasunean eta demokrazian oinarritutako politika nahi duela adierazi du. Justiziaren aldeko dela. Inposaketa guztien gainetik, euskaldun aske gisa bizi nahi duela. Hauteskundeen emaitzak ez du zalantzatarako tarterik uzten:

LARRAIN: ......................................533 boto
UPN:...............................................497 boto
ARALAR:.........................................485 boto
EA: ................................................287 boto

Batuketa erraz bat eginik:

***Abertzaleok: .................1305 boto (% 72,4)***
***Errepresioaren aldekoak: .. 497 boto (% 27,6)***

Leitzan Euskal Herriak irabazi du. Baina egunero Madrildik eta Iruñetik bidaltzen diguten errepresioari babes osoa ematen dioten UPNko kolaboratzaileek errespetatuko al dute leitzar gehienen hitza? UPNko 497 boto horiek kudeatuko dituzten jendeek aintzat hartuko al dituzte abertzaleon eskubideak? Ala bat eginik jarraituko dute kopetaraino armatuta Leitzan egunero beldurra zabaltzen duten horiekin eta beren buruzagi politikoekin? Eta beste udal taldeek, Aralar, eta EAk alegia, onartuko al dute hauteskundeen emaitzen araberako funtzionamendua udalean?

***Konpromisoak hartzeko garaia.*** Euskal Herrian egoera politiko orokorrak urte asko egin du atzera eta Ezker Abertzalea frankismoaren garaietako baldintzetara eraman dute. Eskubideen eta askatasunaren murrizketa izugarria da eta ezin dezakegu deus gertatzen ez balitz moduan bizitzen jarrai. Eskubideen aldeko hautuak egin behar dira, ttikiak batzutan handiagoak bestetan, baina egunero. Bestela, edozein egunetan murrizketa hain handia izanen da ezen beranduegi izan daitekeela traumarik gabeko soluzio egokirik antolatzeko.

***ARALAR taldeak irabazi ez duen alkatetza onartu du.*** Ezker Abertzaleari boto mordoxka kenduz, ARALAR alderdi politikoak mesede izugarria egin dio Estatu Espainiarrari. Estatuak lortzen ez zuena lortu baitu ARALARrek: Ezker Abertzalea zatituz ahultzea. Eta Estatuak bere saria eman dio: Leitzako alkatetza kasu honetan; eta denok dakigu honen balio politikoa ez dela gauerdiko ahuntzaren eztula. Baina garbi gera bedi ARALARri ez dagokiola Leitzako alkatetza, LARRAINek baino boto guttiago lortu baitzuen. Lapurreta honekin ez da ttikia ARALARrek bere gain hartu duen erantzukizuna.

***ARALARren zeregin politikoa: Estatu Espainiarrari lana erraztu.*** Ezker Abertzale historikoa puskatzea zuen lehen lana eta mandatua ongi aski bete du. Gurekin batera urte luzetan jardun duten horiek Estatu Espainiarrak ipinitako dianaren erdian utzi gaituzte, borrokari uko eginez abertzaleon betiko helburuak errazago lortuko dituztelakoan. Jakin bezate ez direla lehenak bide hori frogatzen. EUSKADIKO EZKERRAk aspaldi asmatu baitzuen bide hori. Orain Estatuari, behin Ezker Abertzalea zatituta eta ahulduta, errazagoa eginen zaio errepresioaren lana. Aurreko urteetan jasan duguna nahikoa bortitza ez balitz bezala!

***ARALAR Ezker Abertzale historikoa desager dadin saiatzen ari da.*** Bere garaietan EUSKADIKO EZKERRAK "Estatutuarekin presoak etxera!" zioen edota "Estatutuarekin Nafarroa Euskadin!". Lanaren bide nekezetik inork lortu ez zuena erosotik lortzen saiatu ziren eta horra non diren: PSOEn batzuk, EAJ-EAn beste batzuk, deusetan beste asko. Baina, hori bai, lasai bizitzen denak. Madrilgo ministro espainiarrekin akordioak sinatzera iritsi ziren. Eta akordio horien truke milioika pezeta jasotzera ere. Estatuko aparatu guztiek babestu zuten EUSKADIKO EZKERRAren politika. Borroka armatuarekin bukatuko zutela ziurtatu zieten Madrilgo agintariei. Eta borroka armatuarekin batera Ezker Abertzale historikoarekin ere, EUSKADIKO EZKERRAk beteko baitzuen aurrerantzean haren lekua Euskal Herriaren mapa politikoan. Lorpenak? Hamaika sufrimendu gehiago eragin Ezker Abertzalean jarraitu zutenei eta Euskal Herriari oro har. Mapa politikotik desagertu ziren artean.

***EUSKADIKO EZKERRAren porrota errepikatuko du ARALARrek.*** Orain, Madrilek beste halako tramankulua behar zuelarik sortu da ARALAR. EUSKADIKO EZKERRAk bezala Ezker Abertzalea zatituz eta ahulduz, Madrili errepresio lanak erraztuz. Borroka armatua gelditzeko oihua lau haizeetara zabalduz eta duela 25 urte konpondu ez zuena gaur konponduko lukeen formula magiko gisa astinduz. EUSKADIKO EZKERRAk zerbait zehatza eskaini zion Madrili: polimilien desagerpena. ARALARrek antzekorik ere ez du eskaintzeko. Ezkerreko abertzaleen artean mesfidantza eta etsipena sortzeko ahalegina soilik dauka Madrili eskaintzeko. Historiak jarriko gaitu nor bere lekuan. Baina oraingoz, Ezker Abertzalean jarraitzen dugunok errealitate bat oso garbi ikusten dugu: ARALARrek errepresio lanak erraztu egin dizkio Estatu Espainiarrari eta ezkerreko abertzaleok egun jasaten ari garen sufrimendua areagotu besterik ez du egin ARALARren jarduerak.

***Ezker Abertzaleak bizirik dirau.*** Ezker Abertzaleak bizirik dirau eta ez da bere lekua beteko duenik sortu oraindik. Bere buruaren jabe izanen den Euskal Herria nahi duenak Ezker Abertzale historikoari erreparatu beharko dio berriz ere. Bere akats guztiekin, Euskal Herriaren eskubideak tinko defenditzeko prest dagoen bakarra baita. Beste indar politikoek bide errazak eta erosoak nahi dituzte. Eta horrela jai dago, estatuak euskaldunoi musu truk sekulan ez baitigu deus emanen.

***Azken oharra EA-ren porrotaz.*** Hamaika aldiz gusturago idatziko genuke EA eta UPNren emaitzak alderantziz gertatu izan balira. Baina EUSKO ALKARTASUNAren zuzendaritzak ez du ulertu bere porrota aspaldi iragarrita zegoela. Inorentzat ustekabekoa izan bada, soil-soilik buru egiten duten dozena erdi lagun horientzat izan dela. Urte asko dira bi bide okerretatik dabiltzala guztiz itsututa: 1) herritar gehienen interesen gainetik jauntxokerian oinarritutako politika egiten baitute; 2) abertzale gehienen asmoen aurka, elkar lana bultzatu beharrean, Ezker Abertzalearen kontrako politika zuzena egiten baitute, hortik politikoki gizenduko direneko itxaropenaz. Abertzaleok eta Euskal Herria maite dugunok elkarren arteko adostasunak bilatu behar ditugu, lana erraza ez den arren. Baina abertzaleon arteko mutur joka bultzatzen dutenak berriz ere porrota jasoko dute, eta amildegitik behera oso urrutira iristeko arriskuaz gainera.

***Euskal Herria Askatu-ko kide batzuk***

***Leitza-2003***

# Hil aurretik larrutzen?

Pasa berri diren "hauteskunde" deitutako horietan gauza larriak gertatu dira Hego Euskal Herrian orokorrean eta bereziki Nafarroa Garaian zein gure herrian bertan. Leitzarrok beste inork baino argiago ikusi eta pairatu behar izan dugu hori guztia.

**Espainiar Estatu faxistak (PP-UPN eta PSOE-PSE-PSN alderdien akordio bidez), Hego Euskal Herrian sufragio unibertsala, guztioi dagokigun bozkatzeko eskubidea, ezabatu du.** Beltzen aurka Hegoafrikar arrazistek ezarritako "Apartheid" gisakoa ezarri zaigu ehundaka milaka Euskal Herritarrori, ordezkaritza politikoa hautatzeko zein ordezkari izateko eskubideak deuseztuz. Estatuak azken urteotan jantzita izan duen demokrata mozorroa kendu eta bere berezko izaera frankista erakutsi du horrela.

**Sufragio unibertsalaren deusezte faxista horrek, "hauteskunde" deitutako horiek iruzur galantan bihurtu ditu.** Hauteskunde hauek baliorik gabeak izan dira, antidemokratikoak, "putxerazo" izugarria. Frankismoak alderdiak legez kanpo utzi zituen bezala, orain hamarkada batzuk geroago, PP-UPN eta PSOE-PSE-PSN alderdi faxistek aurreko udal hauteskundeetan Hego Euskal Herrian bigarren indarra izan zena hautes eremutik kanpo utzi dute.

Baina hori guztia larria izanik ere, larriena ez da hori izan, **larriena Hego Euskal herrian sufragio unibertsalaren deusezte faxista hori onartzea eta bertatik probetxua ateratzen saiatzea izan da.** PNV, EA, Aralar, Batzarre, IU eta CDN hauteskundeetara aurkezteak, bidegabekeria horren konplize aprobetxatu bihurtu ditu. Kontrarioa jokotik kanporatuz, iruzurrean eta eskubideen ukazioan oinarritutako hauteskunde batzuetan parte hartzen dutenak, hemen eta Pekinen, bidegabekeriaren konplizeak dira. Areago, faxistek egindako azpijokoa onartu eta lapurtutako karguak bereganatzen dituztenak, hemen eta Pekinen, lapurrak dira.

Baina kontuz, argi gera bedi, **PNV, EA, Aralar eta Batzarrek ez diote Ezker Abertzaleari boturik lapurtu.** Bozkak botuemaileenak dira eta beraien erabakia da aldi bakoitzean nori eman. Bere garaian Ezker Abertzaleari botua eman eta oraingo honetan bozka aldatu dutenek eskubide osoa zuten hori egitekoa eta ezin daiteke esan botu horiek Ezker Abertzaleari lapurtu zaizkionik.

**PNV, EA, Aralar eta Batzarrek Ezker Abertzaleari lapurtu dizkiotenak alkatetzak eta zinegotziak izan dira.** Herritarrek horrela nahi izan dutelako Ezker Abertzaleari zegozkion alkatetza eta zinegotziak lapurtu dizkiote eta lapurreta hori ez dute botuemaileek egin, lapurreta PNV, EA, Aralar eta Batzarreko arduradun politikoek egin dute, ez beraien botuemaileek. PP-UPN, PSOE-PSE-PSN zein IU alderdiek ere lapurtu dituzte baina hori izan da hasieratik beraien helburua... baina benetako hipokritak beste hauek dira, aurpegi batekin ilegalizazioa salatu eta bestearekin ilegalizazioaz aprobetxatzen direnak.

**Abertzale edota ezkertiar omen diren alderdi horiek, faxisten eskutik, ahalegin lotsagarri bezain antzua egin dute Ezker Abertzalea mapa politikotik desagerrarazteko.** Ilegalizazioa aho txikiarekin salatzez bukatu baino lehen, Ezker Abertzalearen heredentzia jasotzera abiatu zarete laisterka, inongo duintasunik gabe, inongo lotsarik gabe. Hildakoaren gorpua oraindik bero zegoela notarioarengana jo duzue bakoitzaren puska jasotzera.

Baina Ezker Abertzalea ez da hil, zuek hala nahi izan arren ez duzue hil. **Ezker Abertzalea indartsu dago, egoerarik txarrenetan ere aurrera egiten badakiela erakutsi du eta traba guztien gainetik ia 160.000 bozka lortu ditu.** Europan sekula ezagutu ez den desobedientzia ekintza garrantzitsu eta erraldoiena gauzatu dute milaka gizabanakok. Herri honen duintasunak bizirik dirau.

**Egoerarik txarrenean ere, Ezker Abertzaleak aurreko hauteskundeetan (2001ekoak) pairatutako botu galera etetea lortu du** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, aitzitik hamarnaka mila botu galdu dituzte PPk (114.000 botu) eta PNV-EAk (106.000 botu). Bozka horiekin Ezker Abertzaleari 712 zinegotzi zegozkion (berriro ere, 1999an bezala, Hego Euskal Herriko bigarren indarra zatekeen), baina lege faxista espainiarraz baliatuz, 472 lapurtu dizkiote, eta larriagoa dena gehienak PNV-EAk.

**Lapurreta horren adibide argiena Lizartzan izan dugu,** Harri Plataformak bost zinegotzi eta PNV-EAk bi besterik lortu ez arren, lege faxistaz baliatuz, PNV-EAk alkatetza lapurtu baitio lizartzarren gehiengo absolutuari. Lapurreta hori gainera ez dute herriko politikarien bidez gauzatu, PNVko zuzendaritzaren inplikazioa ezin zuzenagoa izan da, Joseba Egibar bera izan baitute lapur-buru.

Baina PNV-Eak ez ezik, **Aralarrek ere lapurreta horretan parte hartu du** eta tamalez, kasu honetan adibide argienetakoa Leitzan bertan ikusten ari gara. Larrain herri plataforma aukera bozkatuena izan da, 533 bozkarekin, bozka kopuru horrek 3 zinegotziko ordezkaritza dagokio. Baina Leitzan Euskal Herriko beste hainbat tokitan bezala, ustezko alderdi demokratikoek ez dute Leitzako 533 herritarrei dagokien ordezkaritza politikoa bermatu, Leitzarrok nahi dugun ordezkaritza ukatuz, hauteskunde usteletik udal ustela sortuz. UPNk 2 zinegotzi eta Aralarrek 1 ostu dizkio Larrain Herri Plataformari, Espainiar lege frankista gure herrian gauzatuz, UPN, EA eta Aralarrek ez duzue Leitzarrok erabaki duguna errespetatu, ezta guztion eskubideak urratzen dituen lege honi aurre egiteko ausardiarik izan, Larrain Herri Plataformaren ordezkaritza bermatu.

**Gutxieneko duintasunik izan bazenute, PNV, EA, Batzarre eta batez ere Aralarrek "hauteskunde" hauetan ez zenuten aurkeztu** behar (oraindik dimititzeko ere ez da berandu). Zenioten bezala, benetan ilegalizazioaren aurka bazeundeten, ez zenuten jokoan parte hartu behar eta orduan Estatuaren estrategiak kale egingo zukeen, Hego Euskal Herri ia osoan udalak ezingo baitziren eratu. Hori zatekeen burujabetza aldarrikatzeko bide demokratiko eta ez-biolento bikaina, eragin-kortasun izugarria zukeena. Baina ez, aukera ezin hobea zen, are gehiago aurreko hauteskundeetan Ezker Abertzaleak pairatutako bozka ihesaldia ikusita, Ezker Abertzalea lurperatu eta bere kontu gizentzeko.

**Baina kontuz, ez dugu okertu behar. Lotsagabekeria honen guztiaren arduradunak nortzuk diren argi eta garbi bereiztu behar dugu: arduradunak ez dira PNV, EA, Aralar eta Batzarre bere osotasunean, arduradunak alderdi horietako zuzendaritzetako kideak dira, politikari profesionalak, poltrona lortu eta askan muturra sartzeko beraien laguna bera ere salduko luketen horiek.**

**Eta orain, egin dutena ikusita, nola sortu, bultzatu, kudeatu Lizarra-Garazi moduko ekimen berri bat esku-burdinez lotutako Ezker Abertzalea, bere burua ezin defendatu egonik, bizkarretik labankadaz erailtzen ahalegindu direnekin?** Ez dago zalantzarik beraien botuemaileen artean gehiengoak politikari horiek erakutsi dutena baino duintasun zein lotsa gehiago badutela, ondorioz gertatutako guztiaren ardura horiei leporatu behar zaie. Botuemaile horiei aldiz, beraien bozkak horretarako baino gehiagorako balio duela erakutsi behar zaie, are gehiago, beraien noizbehinkako bozkak baino gehiago, eguneroko lanak eta konpromezuak balio duela: benetako euskal demokraziaren alde, bakearen alde, burujabetzaren alde, euskararen alde, naturaren alde, berdintasunaren alde, justiziaren alde...

**Gure arteko konfidantza eguneroko lanean elkar ikusten badugu soilik berreskuratuko dugu. Guk lanean jarraituko dugu, instituzioetan ez bada kalean, beti egin dugun moduan, eta zuek? Zer egingo duzue zuek?**

*Euskal Herria AURRERA*

Naparroako edo alde artako albixte batzuek eman nai nituzke asi dedan ataltxo ontan denbora pasa nagoen itxuran, baina biotzean dauzkadan sentimentuak adieraziz garbiro nere gurasoak erakutsi zidaten euskera xamur eta txukunean.

Ni, Leitzako Franki baserrian jaiotako semea naiz, Manuel Lasarte. Naparroan erri askotan bertsotan jarduna urte sail aundian. Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki eta abar lagun nituela guzto asko erri bakoitzean pestak zituztenetan abixatzen ziguten, aien ospakizuna jendearen gogoangarri izan zedin gerorako ere, baina baditu bere muga batzuek.

Bertsolaritzak ere, Naparroan guk ezagutu degun jenderik bertsozaleena, Leitzan izan da beti; Areson ere bai. Ei erri oiek, apartak dira gai ortan beste inori ezer kendu gabe diot au. Urtean bein, erri askotatik artzen genituen deiak pesta nagusiak ospatzerakoan, baiña ori gauza gutxi da Leitzakoarekin konparatu aal izateko, nere ustez beintzat.

San Tiburtzio, abustuaren amaikagarrena danez, egun pozgarri ori noiz etorriko zai egoten giñan gu gazte denboran, batez ere ilusioz beterik, Franki basarri zaarean. Gero, bertsotan asi nintzan garaian berriz, ume mimatu bat bezela erabili ninduten Leitzan ara joaten nintzan bakoitzean, emen Gipuzkoako Aiatik; bizikletan zenbat buelta egin ote nituen nik Leitzako sorterrira!

Ai orduko sasoi eder ura balego!; gaurko kotxerik onena baino naiago nuke, oinez ibili bear izanda ere.

Or, Ernani, Urnieta, eta ainbat erritako jendea mendiz mendi joan oi zan eguraldi onetan behintzat, izerdiz gorputzari busti aldi eder bat emanez denbora pasa. Leitzako pestak ikusi, ardo pixkabat edanez Franki baserrian kontu zaarrez gozatu. Askok bai zuen bertan sarrera! Ondoren noski, Leitzara bazkaria eginez pesta betetzera.

Borondate onez jantzitako adizkide leial aien jokaerak ez zuen gutxi balio! Etxeko ta kanpotarrak, denak bat eginik; senide ta guraso zaarrak bezela alkartzen ziran.

Leitzak, nik ez dakit zer duen baiña doai bereziren bat bearko duela esan liteke. Oraindik ez dira egun asko, an bertako famili batekin itzegin nuen emen Orion, eta nere galdera betiko antzekoa izan zan, ea liburu asko saltzen al zuten Leitzan ta erantzuna baiezkoa izan zan, geienetan ume txikientzat erosten zituztela euskerazko liburu koxkorrak. Oso gustokoak omen dituzte noski umeak eta dexente azitako gaztetxoak ere bai. Arek jakingo du, berak bait dauka liburu denda.

Euskeraz, ugari itzegiten dala zion Leitzan; poztu ninduen beneta arrazoi zoragarri orretxek. Nik bizitza osoan ezagutu det Leitza euskera ederrez apaindua, eta aurrera antzean ere, alaxe izatea nai nuke baiña orrek ez du esan nai erderaz itzegin bear ez danik; zenbat eta izkuntza gehiago ikastea, norberetzako duela mesede iduritzen zait. Pertsona batek ez bait du jakiten zertaz beartu litekeen mundu ontan.

Emen aipatzen dedan auxe da "MAIMUR" liburu denda. Ez dakit Leitzan zenbat geiago dauden; dana dela irakurtzeko apizio sutsua duenak, nere lantxo au ere urtero bezela aurkituko du "PLAZAOLA" aldizkarian, ea gustatzen zaion. Nik aaldedan modura egin oi ditut gauzak.

AGUR LEITZATAR GUZTIOI ! ! !

**MANUEL LASARTE**

# AMA ALABAK

Auzoko Martintxo det
maite naguana
nerekin ezkonduta
bizi nai duana
ezin det erabaki
au da nere lana
ta zer egin nezaken
esaidazu ama

Maitasunak bizitza
asko errezten du
ta Martinek zuregan
ori ikusten du
obe dezu alaba
berekin ezkondu
ta mutil on beteri
poz ori ez kendu

Beraz diozu ama
Martin ez uzteko
bildurria danikan
ez dezu usteko
denbora bearko du
zerbai ikasteko
ta bere lanak ondo
egiten asteko

Alaba Martintxori
zuk ondoan eutsi
lanean ez dakien
aitzakiz ez etsi
ikasiko du orain
jakin arren gutxi
ta nola komeni dan
ala erakutsi.

Doinua "Markezaren alaba"

# XXII.enean ere jarrai dezagun

Plazaolaren bitartez zerbaitetaz hitz egiteko eskaintzen du aukera, egokia iruditzen zait. Hala ere, aitortu behar dut, gai baten inguruan mugatu nahi izateak, buruhauste dexente dakarkidate. Hamaika gai izanik, non iritzia eman dezakedan, garrantzitsuena zein den aukeratzea suertatzen zait zailena. Nahaste-borraste egitea izan liteke irtenbidea, baina adierazpen honek berak dioen bezala, nahasteko besterik ez du balioko ziur aski. Dena den, azken aspaldiotan gertatzen direnak ikusita, amorrazioa non eta nola kaleratu beharrezkotzat jotzen dudala esan behar dut lehenbizi. Giro politiko-erasotzaileaz ari naiz, hain zuzen ere.

Gai honen guztien aurrean, egunero hainbat egunkaritan, irratitan eta hainbat telebistatan entzuten eta ikusten duguna laburtzea eta nire amorrazioz jantzitako desadostasuna besterik ez zait gelditzen. Bizi-ezintasuna, giza-ezintasuna, ezintasuna azken finean, izaten da nigan bezala, gugan, euskal kolektibitatearengan sortu eta sartu nahi duten sentsazioa, sentimendua,...

Kasualitatea bada ere, gazteleraz kantatzen duten bi lagunek letraz ohartzen naiz; "Gerra ez dadila ezaxolagabekeria bihur, mina ez dadila ezaxolagabekeria bihur,... hau da Jainkoari eskatzen diodan bakarra...". Nik pentsatzen dudan bezala, beste batzuek, jainkoari ez baina, jendeari, gizarteari eskatu ohi diote, baina, gero eta gutxiago ote diren aditzen dutenak pentsatzen hasia naiz .

Beno lehen nioen bezala, luzez jarrai genezake honen inguruan, baina batzuetan zehatzagoa izateko beharra sentitzen dudanez eta itxuraz salto nabaria eginik, askorentzat arrunta izan arren, euskaren gaiari eutsiko diot. Euskaraz mintzatzerakoan arlo eta maila ezberdinetan egin daitekeela jakina da.

Aspaldion dudan irudipenaz mintzatu nahi dut. Horretarako bide izan da, Bilboko Unesco-Etxeak munduko hizkuntzen egoerari buruz egin duen lehen txostena izan da.

Bertan esaten duenez, hizkuntzen %50-80 galduko dira heldu den menderako. Jakin behar da, adituek dioten arabera, munduan 5.000-6.000 hizkuntza daudela. Hauetan, ikerketaren arabera hizkuntzen %53 transmititzen dira bakarrik. Hau da, munduko hizkuntzen erdiak baino gehiago ez dira gurasoengandik seme-alabengana pasatzen. Hona homen arrazoia esateko, bizpahiru belaunalditan, munduko hizkuntzen erdiak galduko direla.

Txostena, ildo nagusietan laburbilduz zera dio; "kezkagarriena" hauen erabilera da. gazteek munduko hizkuntzen %30 erabiltzen dituzte bakarrik. Alegia, hizkuntza bat jaso, baina beste bat erabiltzen dute.

Transmisioa eta erabilera datuak kontutan hartuz, txostenak dio XXII. Menderako munduko hizkuntzen %50 eta %80 artean galduko direla, "gauzek orain arte bezala jarraitzen badute, behintzat". Hala eta guztiz ere, aurreikuspen ezkorragoak badira eta hauek %90 galduko direla diote.

Ikerkerta honetan euskararen egoera, munduan diren beste askoren egoera ikusita alderatuz, dirudienez, ez da hain txarra. Hala ere, alde ilun asko ditu eta ezjakina da non eta nola garatuko den, garatzen bada behintzat.

Azkeneko hilabetetan argitaratu diren ikerketa ezberdinek, ez dute esperantzarako tarte handirik ematen eta hori horrela izanik, eragileak, egoera kaxkarraren eragileak zein diren aztertu beharko genuke. Jakina da, EAEn ematen den egoera, Iparraldekoa edota Nafarroakoa ez dela parekatzeko modukoa. Berdintsu ere ez da gertatzen Nafarroako iparraldean, erdialdean edota hegoaldean. Mendialde honetan, herri ezberdinetan bizitzen den egoera berdina ez den bezalaxe.

Eragileak aipatzen genuenez, honekin batera esan beharra dago, ene ustez behintzat, hauek ez direla behin betikoak, baina bai maiz errepikatzen direnak. Hau aipatzerakoan, historian zehar gertatu den moduan, boterea eta herriaren arteko jarrerak eta erabakiak jarri behar ditugu mahai gainean. Orohar, botere politikoa oztopoa izan bada ere, ardura beste aldera ere jarri behar genuke. Herritarrok, erabaki politikoen hartzaileak garen neurrian, ezin genezake kulpabilitate sentimendua gureganatu. Baina hala ere, gure esku dago, hein handi batean behintzat, eta beste elementu asko dagoela tartean jakinik ere, baina berriro diot, hizkuntzaren bilakaeran erabiltzaileak garen neurrian, hizkuntzaren biziraupena gure esku dago, arduradun gara.

Jende askok pentsa dezake, alperrikakoa dela hizkuntzaren aldeko jarduna. Laupabost sentimentalen burutan besterik ez dagoela euskararekiko edota euskararen presentzia benetakoa izan dadin agertzen diren aldarrikapen horiek guztiak. Zergatik hizkuntza gutxituko komunitatetan mantendu, babestu eta indartu nahi, beste hizkuntza nagusienak hortxe ditugunean egunero eta aldioro gure ingurunean? Ez al da gizarteak daraman "martxan" oztopo, eremu urriko hizkuntzak bultzatu nahi izatea? Finean, ez al da denbora alperrik galtzea?...

Hemen iritziak iritzi debate handi samarra zabal daiteke, baina hemen nik neronek bakarrik idazten dudanez, laburki adierazita horrelako usteen aurka azaltzen naiz. Alde batetik uste dut, balore sentimentala, ezin daitekeela gutxietsi. Norbera, bere ingurunea, jaso duenaz, bizitzen duenaz interpretazio bat izan dezake eta horrek balio izan jarrera bat mantentzeko.

Bestetik historiaren prozesuaren ondorio bat garenez, hizkuntzak berak, gure kasuan garbi, hau bera, gure historia, gure gizartea, gure gora-beherak azken finean ulertzeko balio du.

Bestaldetik, hizkuntzak eremu bat markatzen du eta eremu horretan bizi direnek, maila ezberdineko harremanak garatzen dituzte, eta hauek etorkizuneruntz begira planteiatzen dira, horra hor, hots, harreman ekonomikoak.

Eta bestetik, hizkuntzak komunitatea ere, sortzen duenez, jendeen arteko harremanetan kohesioa gertatzen da. Hauek noski, egoera linguistikoa normalizatua dagoen tokitan gertatzen ohi da. Egoera linguistikoa normalizatua aipatzen dugunean, normalizazio politikoa ere suposatzen da. Beraz, egoera horretatik oso urrun gaude, oraindik.

Garbi dagoena, niretzat behintzat, euskarak aurrera egin dezan nahi badugu, egokitzapen tartea ere zabaldu behar dugula. Askotan aipatzen den arren, lehen gure gurasoek, hauen aurrekoek, eta lehenagokoek, euskaraz mintzatzen ziren noski, baina euskaraz bizitzen zirela aipatzearekin soilik ez dugu, esangurutsua den aportaziorik egiten. Urte gutxitan, gizartearen norabidea, ibilbidea asko aldatu da. Egun, euskarak prestigioa lortu behar du, euskararen erabilerari prestigioa eman behar diogu.

Hizkuntza orok, historia dakarte eta honekin altxor bat dugula esan nahi da. Altxor hau berriz, egoera ezberdinetara egokitu behar da. Gazteek ez dituzte garai bateko interes berak, beharrak ezberdinak dira eta hauek azaltzeko modua batez ere, nabarmenki aldatu da. Teknologi mailan, egun gertatzen diren aldaketak harrapa ezinak dira kasik eta horietan ere egokitu behar da, baina ez hizkuntza tekniko berria sortuz soilik. Eta abar, eta abar,...

Dena den, eta idatzi honen helburuari lotuz, norberaren, bakoitzaren egin beharra handia da eta eguneroko bizitzan frogatu dezakegu. Inork ez beza pentsa "administrazioari" dagokiona baztertzen dudalarik. Horra hor Nafar Gobernuak asmatzen dituen euskararen aurkako dekretoak, euskal kulturari -orohar- folklorismoaren usainetik kanpo, egiten dion hutsunea. Benetako hizkuntza politika bermatzeko ezartzen dituen oztopagile diren bitartekoak,... eta abar, eta abar,...

Baina arestian aipatzen nuen moduan, guk ere badugu zer egiterik, aurreko honi, aurre egiteagatik besterik ez bada.

Leitza herri euskalduna da, noski. %96a euskararen ezagutza duena. Halaber, erabilera neurtu izan denean, %70 ingurura jaisten gara. Nire iritziz, erreala ez dena baina. Gure kaleetan barna joanez gero, gero eta gutxiago aditzen dugu jendea euskaraz. Ez da neronek bakarrik dudan inpresioa. Herriko plazan, igerilekuko txokoetan, taberna zuloetan, zenbait komertziotan,... gaztelera nagusitzen ari da. Jendeak, herritarrok, ez dakit zein portzentaiatan, baina euskararekiko azaltzen dugun zaletasuna, maitasuna, praktikotasuna, lotura, gero eta eskasagoa dela esan daiteke.

Honekin batera aipatu ere, tokiko administrazioak, udalak alegia, azken urtetan ahaleginak egin dituela euskararen presentzia, zabalagoa izan dadin. Eta maila batean aurrera pausoak eman dira, euskarazko idatziak udaletxean, oharrak eta jakin-arazpenak, normalitate osoz irakurri ahal izatea. Irratia sortu eta mantentzea,...

Honen ondoren eta ondorioz, herriko beste hainbat elkartek, taldek eta beste erakundek (eskola-institutoa), bide horri ekin diote. Orain osatu den udalak atzera eginen ez duelakoan gaude baina, hala eta guztiz ere, ez da nahikoa. Espazio publikoa eta kalekoari ekin behar zaio. Galbidea geldiarazi behar dugu eta goruntzako bidea hartu.

Askotan, lehen esan bezala, administrazio ezberdinei so egin beharko diegu. Baina egunero eta erabat, gure etxeetan, euskararen transmisioa ziurtatu behar dugu, gure kaleetan euskararen presentzia areagotu behar dugu, ezaugarritzat har gaitzan eta lan munduan, teknologi berrietan,... apostu ausarta egin behar dugu. Aspaldidanik erabili izan dugun esaldiaz amaituko dut nahi duen guztiak animatuz; "euskaraz bizi, merezi du eta,..."

**ZUNPA**

TORTURAREN AURKAKO TALDEA
Tel: 943333674
Fax: 943336482
E-posta: tat@stoptortura.com

# Torturaren desagerpena landuz

Estatu espainiarrean torturak duen aurpegi beltza agerarazi nahi dugu lerro hauen bidez. TAT - Torturaren Aurkako Taldeak 2000. urtean bilduriko datuen arabera, 77 euskaldunek salatu zituzten tratu txar eta torturak euren atxiloketa inkomunikatuetan. Hauetatik, 55 izan ziren judizialki salaketa ipini zutenak, eta salaketa hauetatik jada 35 artxibatuak izan dira, instrukzioa aurrera eramateko frogarik ez dagoela argudiatu ondoren. 2001 urtean datuak are larriagoak izan ziran, 100 euskal herritar torturatuak izan ziran eta 55 salaketa ezarriak genituen. Aurten berriz, dagoeneko 70etik gora euskal herritar dira torturak jasan dituztenak, eta, datuak ikusita ondorioztatzen dugunez, tortura era gero eta basatiagoak erabiltzen dira eta larriagoa dena, salaketetaz parre egiten dute torturatzaileek, duten inpunitatearen neuria argüí eta garbi utziaz. Salaketa ipini duten gehienen hizketaldia ez da entzuna izan, sendagile eta psikologoen esanari ere ez diote kasurik egin, ez eta atxiloketen zaindaritza zutenekin galdeketarik burutu. Salaketa jaso duten epaileek ez dute inolako frogaren egiteko agindu... Zenbat eta lehen artxibatu, arazo gutxiago.

Azken 24 urte hauetan etenik gabe errepikatu diren tortura eta tratu txar kasuak desagertze bidean ipini nahi ditu TAT ek Euskal Herriari zuzenduriko ekimen soziala abian jarriz. Ekimen garrantzitsu honen oinarria 9 puntu biltzen dituen proposamenaren inguruko indar metaketan datza. Proposamenak, atxilotuei ezartzen zaien legediaren aldaketa ezinbestekotzat jotzen du, eta antolakunde internazionalen nahiz Gobernuz Kanpoko Erakunde ezberdinetako arrazoitzeen arabera osatu da. 2000. urteko Ekainean eman genuen argitara, eta jarraian Euskal Herrian aritzen zareten eragile guztioi ( politikoak, sindikatuak, eliza, hedabideak, herri mugimendua...) aurkeztu nahi dizuegu, proposamenaren izaera barneratu, eta zuen lan ildo eta esparruetan uneoro presentzia izan dezan.

Aurkezpenarekin batera, gure proposamenarekin bat egin dezazuen eskatzen dizuegu. Zuen lan esparruetan torturaren aurkako kontzientzia hedatu eta egungo legedi eta praktika alda daitezen Estatuko instituzioetan aritzen diren politikari eta nola ez, Estatuko agintarienganako presioa bideratzea guztion zeregina dela deritzogu.

Hau da gure buruari jarri diogun erronka, Euskal gizarteak duen erronka!!

# LEGEDI ANTITERRORISTAREN EZABAKETAREN ALDEKO EKIMENAREN OINARRIZKO PUNTUAK

Testu honen bukaeran sinatzen dugun eragile edo eta pertsonek, egun Euskal Herritarren aurka ematen diren tortura kasuak onartezinak direla deritzogu. Gure hainbat eta hainbat herrikidek jasandako sofrikarioak ez du konponbiderik baina etorkizunean sofrikario hau inork jasan ez dezan posible da. Bide hortan, guk, testu honen sinatzaileok, Estatu espainiarrari datozen 9 puntuetan proposatutako neurriak har ditzan eskatzen diogu, eta hau errealitate izan dadin ahalegin guztiak egingo ditugunaren konpromezua hartzen dugu, honela soilik lortuko baitugu aurrerantzean atxilotuei dagozkien eskubideen errespetua eta bermea.

1- Auziperatze Kriminaleko legediaren 520 bis. artikuluaren ezabaketa. Honek, pertsonaren atxiloketa eta inkomunikazioa 5 egunetara luzatzea baimentzen baitu.

2- Auziperatze Kriminaleko legediaren 527. artikuluaren ezabaketa, atxilotutako pertsonari dituen eskubideak murrizten baitizkio. Oinarrizkoa dela ulertzen dugu atxilotuaren senitartekoek bera aurkitzen den lekuaren eta egoeraren berri edukitzeko eskubidea. Era berean, diligentzia judizial eta polizialetan atxilotuak aukeraturiko abokatuaren presentzia ezinbestekotzat ikusten dugu, hala nola, diligentzien ondoreneko uneetan pribatuan hizketaldia edukitzeko eskubidea.

3- Atxiloketak irauten duen artean pertsonaren osasun fisikoa nahiz psikikoa bermatu dadin, atxilotuak bere kabuz aukeraturiko sendagileek ikus dezatenaren aukera izan behar luke, hauek, atxilotuaren inguruko azterketak egin ditzaten, beti ere atxilotuaren egoeraren jakitun izateko.

4- Auziperatze Kriminaleko erreforma 1988.ko Maiatzaren 25 ean onartu zen, eta, bertako Lege Organikoaren 384 bis artikuluan, Entzutegi Nazionalak dituen konpetentziak bertan behera uztea eskatzen dugu. Honela atxilotuen instrukzioa eta auziperatzea, euren jaioterriko auzitegien esku geratuko litzateke.

5- "Habeas Corpus" delakoaren ezarpena eta erabilera. Modu honetan epailea bene benetan arduratuko litzateke atxilotuaren egoeraz.

Habeas Corpus-a zuzentzen duen L.O. 6/1984 legearen 2. artikuloaren bigarren parrafoaren ezabapena. Artikulu honek, atxilotuaren inkomunikazioa agindu duen epaile beraren eskutan uzten baitu Habeas Corpusaren erabilera.

6- Poliziek aurrera eramandako diligentzia ororen deuseztapena, baldin eta atxilotutako pertsonaren osasun psikikoa nahiz fisikoki kaltetua izan bada. Zentzu honetan ezinbestekoa jotzen dugu, torturak salatu dituen pertsonaren inguruko ikerketak, atxiloketa aginduari eta instrukzioari atxekitzea.

7- Epaile eta agintari judizialen aldetik sakoneko ikerkuntza ahalbidetzea tortura testigantzaren aurrean. Ipintzen den une beretik argitu dadila salaketa egiazkoa denentz, honetarako, sendagileen froga eta neurriak erabiliaz. Oinarrizkoa da, bai behintzat ikerkuntzak dirauen artean, salaturiko zaindarien behin behineko kargu uztea ziurtatzea.

8- Egoitza polizialak bideo kameraz hornitzea, atxilotuari ematen zaion tratuaren berri izateko, atxiloketaren nondik norakoa jarraitu ahal izateko, atxilotuaren intimitatea bermatuaz, egiten diren diligentzien ezagutza edukitzeko.......

9- Tortura kasuak eragiteagatik zigortuak izan diren funtzionarien aldeko indultuen desagerpena. Gaur egunean, hauetariko gehienek zigortuak izan diren kargu berberean jarraitzen dute edo ta goragoko postuak eskeini zaizkie sari gisara. Gobernuak nahiz Erregetzak adostutako praktika honekin torturaren erabilpenerako bideak ireki besterik ez dira egiten.

LEITZAKO TORTURAREN AURKAKO TALDEA

# Larunbatetan erromes

Igande goizetako mezetarako bidea larunbat gauez hasten dute Leitzar erromesek. Konpostelarako bidea Leitzatik pasa ez arren, badu Leitzak bere erromes bidea., San Migel bidea eta ez dira hamaika egun behar, ez dira hamaika herri pasa behar... keba, Leitzako erromesaldia hamaiketan hasten da.

Erromesek edozein kapila "Txoko"tan geratu ohi dira 10:30ak inguruan, batzuk "Leitzarra" parrokian... baina denak erromesaldiari ekiteko sinistun. Erromes zintzoak eta laurdenetarako daude bertan, erromes fidelak 10:30etarako eta ez zintzo eta ez fidel diren erromesak, oinetakoekin arazoak izan dituztelako edo, ahal dutenean iristen dira erromesaldiaren lehen unera.

Erromesaldi honetan San Migel goratzartzen da, bera da gidari eta bide lagun. 11:00etarako gure jainkoaren odola probatzen hasten da; haseran gogor egin ohi da odolaren hartzea baina fideltasuna eta zintzotasunari leialtasun osoz, gusta edo ez gusta, Santuari amen.

Erromesaldi honetan bidea ez da metrotan luzea baina luzea izan liteke... Gogortasun berezirik ez du bideak, baina bidea gogorra izan liteke...

Baina bidea San Migelen senari jarraituz egiten da, zintzo eta zuzen.

Erromesak, hala ere, ez dira beti zinzoak; beste santuei ere amen egin izan ohi diote; baina jainkoa ez bedi triste ipini, denak ditu seme eta. Eta zintzotasunetik zerbait galdu arren, zuzentasunean ere hanka motz dabiltz. Normalean zuzentasuna galdu ohi dute konfesatzeko gehien dutenak, pekatuetan galduriko erromesak... Bestetik, konfesatzeko deus ez duenak erromes izateari utzi egiten dio, bidea nekosoa egin ohi zaio, ezin izaten du San Migelen indarrari eutsi, ez da erromes leiala izaten, ez zintzo eta ez zuzena (bueno zuzena bai). Hala ere, penitentziarik ez da izaten, hurrengo erromesaldian bidea egiteko prest egoten baita, eta horrelakoetan jakinten da nor den erromes ona.

Erromesaldi hauek, herritarren zintzotasuna neurtzeko dira baliagarri; eta horrelaxe ekiten zaio igande goizeko mezetako bideari.

Hala ere bideari ekin arren, ezin izaten du inork behar duen lekuan buka. Hasera batean pentsatu zen bidearen gogortasunaren eraginagatik zela, San Migelek hainbesterako indarrik ematen ez zuela... baina ez da hala. Goizeko 8ak dira kalterik handien eragiten duena, zortziak "Zortziko"n (etan kapila hontara erromes oro da leial, ordu bete lehenago bertan baita). San Migeletaz ahazten diren garaia da hau eta gure sustraiei uko egiten zaien unea. Kanpoko santueangana jotzen da eta gure bidea utziz, Cao-tarren, Cola-ri eginez amen, eta ez dakit zein jainkoren gorputz zatiak odol hortan bustiz, lokatzez zikinduriko gorputzak, jainko honen odola gure erromesen paparrean behera, jantziak zikinduz eta bidetik ihesi joateko bide emanez.

Eta hamaiketan hasi arren ezin hamaiketara iritsi, hamaiketakoa ere hamaiketan egiten ez den erromes bidea baita Leitzakoa.

Barka beza Tiburtzio, baina San Migelen bidea ona da, San Migel lagun ona da, San Migel bide lagun ona da... eta leitzarrak erromes zintzo, leial, zuzen eta finak dira, San Migel bideko erromesean behintzat.

**SAN GRIA**

# Leitzan euskeraren inguruko sensazioak

Duela hamarren bat urte etorri nintzen lehenengo aldiz Leitzara. Herri euskalduna eta ohitura zahar ugari mantentzen zituena iruditu zitzaidan. Ihauteriak ziren. Sentsazio onaz hasi nuen herri honekiko harremana. Aurrerantzean beste sensazio batzu azalduko ziren...

Kuriosoa izan zen orduan gertatutako bitxikerietako bat: kanpotarrak ginelakoan, zenbait herritar "gazteleraz" zuzentzen zitzaizkigun, "¿Que me dizzzzzesss?"-en antzeko esakerak gaztelera kaxkar xamar batean erabiliaz.

Urte askotan Nafarroa Iparraldean (eta Gipuzkoan) lana egin izan dut eta, gaztelera maila (zoritxarrez euskeraren kaltetarako gehienetan) hobetzen zihoala konturatu naiz. (Bortziriak: Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantza; Malerreka: Doneztebe, Ituren, Zubieta; Baztan: Elizondo, Arizkun,...).

Adibide gisa benetan penagarria izan da Lesakak duen euskalki polita baztertu eta gaztelerara jotzen dutenen ohitura kontzientzigabea. Beran, euskaldun bat baino gehiagok hainbat urtetan euskera baztertzearen poderioz ahaztu egin du, zer esanik ez Donezteben, eta Elizondon. Gazteleraz soilik hitzegiten duena "gehiago" ote denaren ustetan? noiztik da "gehiago" gutxiago dakiena? Ni ez naiz inor baino gehiago, ez eta gutxiago ere!, eta zu?

Diktaduraren ondorioak bizitzen ari gara, euskalduna zen guztia gaitzetsia zegoen garai iluna eta luzea. Erremediorik ez duela konturatuko banintzake, bere horretan onartu eta aurrera segi besterik ez nuke. Baina azter dezagun ingurua. Ni oiartzuarra naiz. Txikitan gure inguruko denak hizkuntza bera erabiltzen genuen eta kanpotik etortzen zirenak gurera egokitzen ziren, Guardia Zibilen semeek ere euskeraz ikasten zuten! .Diktadurarena neurri batean behintzat ez ote da aitzakia merke bat?

Etxean ikasi genuen euskalzaletasuna eta oraindik indarrez defendatzen dugu. Garai batean etorkinen aurrean, gaur egun euskaldunon utzikeriaren aurrean. Arma honek inorentzat ez du arriskurik, orain, ez erabiltzea euskerarentzat hil ala bizikoa da.

Norbanakoek uste baino indar handiagoa dugu. Gure ekintzek eragin handia izan dezakete. Imajinatu besterik gabe euskeraz mintzatzen dakigun guztiak euskeraz soilik egingo bagenu...

Berriz honera etorriaz, Leitzan kasu hau askotan gertatu izan zait:

denda batera sartu eta bertan zeudenak gazteleraz jo ta ke ari direla, nere baitan eta esperientziak sortzen didan amorrua frogatu asmoz, euskeraz erantzun baten bati. Ara zer sorpresa!! denek euskeraz dakite eta! elkarrizketa minutu baterako euskalduntzea lortu dut. Animo!

Berriz (segundu batzuetara) gazteleraz dapa dapa hastean, nik berriz euskeraz! eta beste minutu batez bizi-iraun arazi **gure altxorra**!

Nafarroa iparraldea euskalduna omen da. Jakitez hala dela baiezta nezake dudarik gabe, orain erabilera kontuan izanik, Nafarroa Iparraldearen gehiengoa Euskera altxorra bere baitan duen **Kontzientzigabeko Euskaldunez betea dagoela esan behar dut.**

Dendariak, tabernariak, azken batean zerbitzuak, emakumeak eta jubilatuak. Zorionez

edo txarrez dendariak, emakumeak eta jubilatuak dira gaur egun herrian denbora gehien pasatzen dutenak. Honek bihurtzen ditu Euskeraren bizi iraupenaren arduradun nagusienetakoan. Euskera erabili!!

Gazteak: Gazteak dira gizarte baten biziiraupena ziurtatzeko ardatz nagusienetako bat. Ikusle izatetik etorkizunean praktikara pasako dira eta aurrerago irakasle bihurtuko. Euskera erabili!

Herriko gazteak euskeraz jakin eta euren artean gazteleraz ari direla ikusteak izugarrizko tristura sortzen dit.(Nazka ere bai!!)

-Hi, gazte! Euskera altxor bat duk. Ez badakik dagokion neurrian baloratzen, **ez duk merezi**!!

Kultura eta gaztelerarentzako zorionez, Leitzan "dizzzzzesss" hura jada gutxitan entzuten da, "dices"-ek ordezkatu du. Baina zoritxarrez euskera erabilera maila ez da izan behar lukeenaren erdia ere, ez eta izan zitekenaren laurdena ere. Leitzako bizilagun guztiak gara honen arduradunak. Eman diezaiogun bada behar duen bultzada euskerari!!

Euskalduna izatea ideia politiko ororen gainetik dago. Lurralde baten izaera ez da lau urteko iraupenekoa eta lau urte horietan ez da zapaltzen, naiz eta **denak** neurri batean hori bultzatzen gabiltzan.

Europan 2002 urtea hizkuntza gutxietsien"minoritarioen" urtea omen zen. Nafarroan, hizkuntza hauek gehixeago lagundu beharrean inoiz baino gehiago zapaldu, difamatu eta zikindu ziren. To demokrazia!!

Guk, herritarrak, pertsona soilak, politikoak aukeratzen ditugu gure nahiak eta asmoak defenditu eta bete ditzaten. Gu gara haien txistulariak eta haiek gure doinu eta erritmoetara egokitu behar dutenak. Zoritxarrez ez da honela gertatzen errealitatean eta ikusi ongi ikusi dugu urte pilatan hor goian dabiltzan POLITIKARI GUZTIAK heuren zilborrera begiratu eta harek eskatzen diona soilik egiten dutela. Has gaitezen bada txistua ozenki joaz aspalditik gorreriak jota dauden gure ordezkariak bideratzen.

Haserre eta tristuraz idatzi dut. Ajolagabekeri gehiegi ikusteak tripako mina ematen dit. Nola arraio ikasiko dute kanpotarrek bertakoek ere erabiltzen ez dugun hizkuntza???

Nola iraunaraziko dute oraingo gazteek utzikeriaz ahaztuko duten hizkuntza???

Jaun-Andreak, gurea dena guk ez badugu babesten eta behar bezala zaintzen, nork egingo du??

Euskalduna berea defenditzen dakiena ere ba omen da. Nik euskera aukeratu dut. Zuk zer aukeratuko duzu?

Duela egun batzu irakurri nuen Mundu honetako hizkuntza ERDIAK desagertuko direla HOGEI urteren buruan.

Nik ahal dudan guztia egingo dut euskera, desagertuko ez den erdian egon dadin beste urte mordoan. Zu ere honetan ahalegintzeko prest al zaude?

**URKO AROZENA MUXIKA**

ZORTZIKO LABETXEA

*Pesta onak pasa*

ZORTZIKO LABETXEA
KAFETEGI GOZOTEGI ETA OKINDEGIA

- Ogi egin berria
- Prentsa, Gosari goxo goxoa (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, Pastelak, Tartak (Enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapore guztietako kukurutxuzko izozkiak

Elbarren 20 Tfnoa: 948 510 720

**LEITZARRA TABERNA**

IREKITA GOIZEKO 7´30 ETATIK
Ongi ibili kanpotarrak eta ongi pasa bertakoak

Tel. 948 51 03 52 • LEITZA

TXAPA - PINTURA

**GURIA**

KARROZERIAK

**P. KALDERON**

| | |
|---|---|
| **TXAPA** | Neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak bankaden neurria. |
| **PINTURA** | Labe kabina. Denetariko pinturak (ekolojikoak, uretara etab.). |
| **AUTOGARBIKETA** | Garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztiak. |
| **BERRELDAKETAK** | Denetariko akzesorioak eta berreldaketak (llantak, pilotoak, kateak,etab.) |

Landa Poligonoa - Tel. 948 51 02 55 - LEITZA

# Elduaíen

Martín José Iraola Etorbidea, 8 - 3º izda. • Teléf. / Fax. 943 67 00 52 • Tolosa
Kondeko Aldapa, 30 • Teléf. / Fax. 943 67 47 33 • Tolosa
Pablo Mutiozabal, 2 - 1.º planta • Teléf. / fax. 943 37 27 81 • Lasarte
Nafarro Etorbidea. 12 • Teléf. / Fax. 943 65 01 77 • Tolosa
Villa Itxas-Lore
Avda. Infanta Cristina. 15 (Ondarreta) • Teléf. / Fax. 943 31 07 53 • S. Sebastián
Elbarrena Auzoa, 20 • Teléf. / Fax. 948 51 06 35 • Leiza (Nabarra)



Hizkuntz Eskola
Academia de Idiomas
Elduaíen
School of Languages

With compliments and many thanks

- Elduaíen hizkuntz eskolak ingeles ikastaroak eskeintzen dizkizue oso kualifikatuak eta esperientzi duen irakasleekin.
- 25 urtetako irakaskuntza ondoren, hizkuntz bat ere labur batean ikastea proposatzen dizuegu, era atsegin eta arín batetan, ikaslearengan gogo eta interes handi bat eraginaz.
- Ikasleak beren azagueraren arabera maila desberdinetan banatuak izaten dira.
- Azterketa ofizialak gainditzeko prestatzen dugu, adibidez:
  - Hizkuntza eskola ofiziala - First certificate, pet adbanced eta proficiency -
  - Trinity collegeko examinak.
  - Britaniar, alemaniar merkatal kamarak, etab.
  - Amerikar unibertsitateak, Toefl.
- Entrepresetarako klase bereziak.
- Haurrentzat klase bereziak ( 6 urtetik aurrera).
- Elduaíen hizkuntz eskola zuen eskuetan geratzen da edozein kontsultarako.



## LEITZA GARAJEA
## NEKAZARI TAILERRA

*Ta denok kategoriko pestak pasatzen ditugun*

Amazabal, 29 - Telf. 948 51 04 66 - LEITZA
Elizaren atzealdean - Telf. 943 68 35 42 - BERASTEGI
ALFONSO EL BATALLADOR 3 - Telf. 948 27 97 02



## % DIA SUPERMERKATUA
## OKABIO KAFETEGIA

*Pesta goxoak opa dizkizue*

LANDA INDUSTRIALDEA - Tel. 948 510 731

**OIALDE TABERNA**

• BAZKARIAK, BAZKALAURREKOAK ETA OTARTEKOAK
• KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 00 77 LEITZA

**IRATI TERMIK**

C/ELGOYEN, 4 LEITZA – NAVARRA
Tel: 669 396 656
Jose Antonio Gómez y Otros

*Ventanas Aluminio y PVC*
*Aluminio Rotura Puente Térmico*
*Cerramientos Balcones, Oficinas y Divisiones*

**IMELDA LARRAZ**

Estankoa, janari denda etabar.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**PLAZA AUTOESKOLA**

ASEGURUAK

*Pesta onak pasa ditzazuela*

Huarte Gotzaia, 8 - LEITZA
Tel. 948 51 03 38

**LEITZELARREA, S.L.**

*Aroztegia, metal zurgindegia (ateak, barandilak,...)*
*Landa Poligonoa, Tel. 948 51 05 98*
*31880 LEITZA*

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**GARZIARENA ARRANDEGIA**

Eguneko arraiak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Eibarren, 72 • Tel. 948 51 05 90 • LEITZA

**BIKOITZ TABERNA**

PINTXOAK • OTARTEKOAK
PASTELAK • TARTAK
ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU

Eibarren, 16 • Tel. 948 51 00 72 - **LEITZA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**EROSLE**

SUPERMERKATUA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 00 07 - 948 61 06 57 • LEITZA

**LEITZA ERAIKUNTZAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Patxi Arrazola, 14
Tel. 948 61 09 27 - 948 61 09 34

**LEIZA**

MANDRILADORA

Eluseder Pol. Ind. - Tel. 948 51 06 00 - 948 51 06 01
Faxa 948 51 06 02

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**TXOKO TABERNA**

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

CLIK

**FOTO ULAZIA**
Sta. Cruz, 43
Urbanización Zizur
Tel. 948 18 33 01

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ADUR

ADUR TABERNA

- Otartekoak ogi beroarekin
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak:
  - Olagarroa
  - Grabak
  - Ziztorra sagardotan

Elbarren,16 - LETZA
Tel. 948 61 08 64

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**LOCAL SOCIAL MENDIGORRIA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Patxi Arrazola LEITZA

**ULI-ZAR ELKARTEA,S.L.**

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEAK

Bide onde etxea, ARESO • San Miguel, 2 - LEITZA
Tel. 948-510153 - 610682 • Mugikorra: 689-701557
Larrialdiak: 948-271020

MAIMUR

Eibarren, 15
Tel. 948 51 01 46
Fax 948 51 01 46
LEITZA

**PRENTSA • TESTU LIBURUAK • OPARIAK**
**PLASTIFIKATZEAK • ENKUADERNATZEAK**
**INPRENTA LANAK • FOTOKOPIAK**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**GASOLINERA DE LEIZA**

**VDA. DE RAFAEL MUGICA**

Teléfono 948 51 00 57

**LANDA TABERNA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LEITZA

**RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA**
RENAULT zerbitzua

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 59 Elgoien kalea, 15

**SAGASTIBELTZA ETA ARTOLA ERAIKUNTZAK**

Era guzitako igeltsero lanak
Elbarren 86, 2.° ezker
Tels. 948 51 02 65 - 948 61 07 24

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**BIOK JANTZIAK**

Gizonezko, Emakume eta
Umeentzako jantziak

Elbarren. 32 • **LEITZA**
Tels. 948 51 05 58 - 51 04 77

**ARIZTIMUÑO ANAIAK**
**ERAINKUNTZAK**

Lan orokorrak eta berrikuntzak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Telf-ak 948 51 02 eta 948 51 03 74
LEITZA

**IZOZTUEN ETXEA**
**CASA DE CONGELADOS**

AMPARO ETA KATI
Especialidad en croquetas, pimientos rellenos y mejillones. Precocinados, mariscos y verduras.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarrén, 80 • Tel. 948 61 08 85 • 31880 **LEITZA**

**JOVIZU S.L.**

EMBALAJES

*Pesta onak opa dizkizue*

Leitzelarreko errepidea, 1. km.
Tel. 948 51 00 53

**J.M.HERNANDORENA**

BURDINDEGIA - GARBIGARRIAK
OPARIDENDA - GARRAIOAK

*Pesta onak opa dizkizue*

Tel. 948 51 00 55

**JOSE IGNACIO ARZALLUS**

Haratergia - Urdaitegia
Etxeko txistorra

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 03 77 LEITZA
Tel. 948 68 30 42 BERASTEGI

**ORAIN ELKARTEA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

*herritar eta bisitari guztiei*

LEITZA

*Eguzki Ileapaindegia*

Asun eta Lidia

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarren, 34 - 1. A
Tel. 948 61 06 49 LEITZA (Nafarroa)

POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

**AISLAN - LEITZA, S.L.**

TELF. 948 51 07 17 - MUGIKORRA 689 800 371
LEITZELARREKO ERREPIDEA, 6 - 31880 LEITZA



QUIROMASAJE
SOLARIUM
*Pili Villabona Saralegui*

C/ Elbarren, 36-3° B - Tfno. 948 51 06 94 - 31880 **LEIZA**

**TALLERES LAZCANO**

Venta y reparación de todo tipo de automóviles, maquinas agrícolas, bicicletas y motos.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Gorriztarán, 41 • Tel. 948 51 04 04
LEITZA

**TROK**

-ZAPATA KONPONKETA
-LARRUGINTZA

Ongi pasatu, asko dantzatu eta zapatak gastatu

San Jose plaza 5 LEITZA

Vanpac

**VANPAC, S.A.**

(Vasco Navarra de Papel y cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tolosako errepidea, 2 Km-an
Tel. 948 51 01 61

**JUBILATUEN TABERNA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 61 09 35

IREBER

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

LANDA INDUSTRIALDEA - PAB. 9B, 10B
Tel. 639 134464 - 629 831535 - 629 823191

TORREA TABERNA LEITZA

**TORREA ETXEA**

Tfnoa.: 948 61 09 09

GOSARI, ETA AFARI, EDERRAK

EUSKAL MARTXA ETA BORROKA ERREPRESALIATUAK AHAZTU GABE

**G@ZTETXO**

ZIBER- GUNEA
EIBARREN 16 LEITZA TEL. 948510741

INTERNET@
JOKOAK-SAREAN
JUEGOS EN RED

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ESKANERRA

INPRESORA

BIDEOKONFERENTZIA

**EXCAVACIONES JOARBE S.L.**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Obispo Huarte 8
Tel/Fax.: 948 61 09 71
Mugikorra: 629 21 90 68

**BEREZITASUNA: URDAITEGIAN ETA FRUTERIAN**

GOIZARGI

*Pesta onak Pasa ditzazuela*

Patxi Arrazola, 9 Tel. 943 51 05 63

**ZURLAN**

ZURGINDEGIA

ATEAK, LEHIOAK, TARIMA ETA BESTELAKO ZURGIN-LAN GUZTIAK

GOIKO ERROTA • ☎ 948 510402 • Mugi.: 609 067123

*Pesta onak pasa*

**LOREA**

Ileapaindegia eta Solarium-a

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 61 09 07 - LEITZA

**JOSE MARIA ETXEBERRIA**

GIZONEZKOENTZAKO ILEAPAINDEGIA

*Jai onak opa dizkizue*

Tel. 948 51 02 82 • **LEITZA**

**KORNIETA ELKARTEA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**LEITZA**

SG

*Sucesiones de José GOMEZ, s.l.*

*Jai Zoriontsuak opa dizkizue*

OIHALAK - TEJIDOS

C/. Ergoien, 30 • Tel. 948 51 01 30 • 31880 LEITZA



**URTO KARROZERIA**

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK

**Jesús Azurmendi Jauregi**

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*

Kamineros etxea BERASTEGI

Telf-ak. 943 68 34 99 - 948 61 06 64

**DANIEL SAENZ LAZKANO**

Edozein motatako aseguruak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

*Tel. 609 38 39 55 LEITZA*

**MERTZERIA DENONTZAT**

Jostun tresnak, galtzerdiak eta azpiko arropa

*Pesta onak pasa ditzazuela*

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA

BEATRIZENEA

TABERNA

- BAZKARIAK, BAZKALAURREKOAK ETA OTARTEKOAK
- KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Mikel Deuna 2 - Tel. 948 510 612



Zurgindegia Orokorrean.
Sukaldeko altzariak.
Kristaltegia.

**ASTIZ anaiak ZURGINDEGIA**

Pol. Landa P-13, Tel. 948 610 606 // 948 510 285
31.880 LEITZA

*Pesta onak opa dizkizue*

HARATEGIA- URDAITEGIA
URKIOLA

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 04 67 - LEITZA

**DENAUTO SAGASPER TAILERRA**

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA

Eluseder Industrialdea
Poligono Industrial Eluseder

Telefonoa 948 510 610
Faxa 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)

**CARLOS
SAGASTIBELTZA
VILLANUEVA**

ARKITEKTU TEKNIKOA

Proiektuak • Aurrekontuak
Berrikuntzak • Obren kontrola
Lur neurketak • etc.

TELEFONOAK
Bulegoa : 948 61 06 77
Mugikorra: 608 77 68 99

BASA KABI
hotel-restaurante

Gustua baduzu, hementxe gaituzu

Alto de Leitza • 31877 LEITZA (Navarra)
Tel. 948 51 01 25 • Fax 948 61 09 65

**Cocina selecta - Comidas de empresa
Bodas y banquetes - Comuniones y bautizos
Amplios comedores - Salones
Amplio parking - Piscina**

**"GARBI"**

Garbigaidenda
eta Usaidenda

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 51 01 73

**LIZARRAGA**

HARATEGIA

*Jai zoiontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 510 283

**ARAKINDEGIA**

JATETXEA

Tel. 948 51 00 52

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ASTIZ LIBURUDENDA

PRENTSA
TESTU LIBURUAK
OPARIAK
INPRENTA LANAK
ESKOLAKO GAIAK

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elbarren kalea Tel/Faxa 948 510 262

**GURATZ-MENDI**

K. K. J. ELKARTEA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Elgoien, 22 LEITZA

**GAZTAÑAGA TABERNA**

Otartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Tel. 948 61 07 08

CONSTRUCCIONES
**OLIVEIRA-VICENTE**

*Les desea felices fiestas*

C/. Amazábal, 17 - 3.ºB
Tfno.: 948 51 05 16
LEITZA (NAVARRA)

**PERURENA HARATEGIA**

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

Tel. 948 51 01 64

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**HERBODIETETICA
BELARRA**

Estetika zerbitzua
Elbarren, 35 • Tel. 948 51 01 92
LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue, zorionak*

**Pinturas
MELO**

PINTURA GENERAL
Tel. 948 51 05 35 - LEITZA

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ARDOTEGIA
**LENITZ**
ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Tel. 948 51 03 33

**BANCO DE VASCONIA**
*Leitzar eta bisitari guztiak pesta goxo batzuk pasa ditzazuela*
Tel. 948 51 01 35 LEITZA

**PELUQUERÍA EDURNE**
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Elbarren, 35 - Tel. 630 91 67 58
31880 LEITZA (navarra)

**TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA**
Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta labean egindako lehorketa, kolpe haundien konponketa (bankada).
Leitze - larreko errepidean LEITZA
Tels. 948 51 04 60 - 948 51 05 58 (Etxekoa)

**ETXE-TRESNAK S.L. ELEKTROGAILUAK**
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
TEl. 948 51 02 08 - 51 01 81
LEITZA



**MUSUNZAR**
**OSTATUA JATETXEA**
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
Elbarren Kalea, 14
✆ 948 51 06 07 · 948 51 04 75
LEITZA (Nafarroa)



**SAGASTI JATETXEA**
**SAGASTI**
TABERNA ETA JATETXEA
Gosariak, kaxuelak, ogitartekoak
Bazkariak eta afariak
Tel. 948 61 06 37 LEITZA
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

**BITXILORE LOREDENDA**
LORE NATURALAK, LEHORRAK, EZKONTZAK, KOROIAK, ETAB.
*Jai zoriontsuak opa dizkizue*
**Eibarren 59 - Tel. 948 510 654 - LEITZA**

**BULDAIN**
AGENTZIA INMOBILIARIOA
*Festa eder hauetan zuen nahiak bete ditzazuen opa dizuet*
Telefonoa 948 51 05 34 Amazabal 37, behea
**Tel. mugikorra 649 47 66 15** LEITZA

# PAGOZELAY GOIZABAL

**ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK**

*Jai zoriontsuak*

*opa dizkizue*

LANDA INDUSTRIALDEA • LANDA ETXEA 1 SOLAIRUA
31880 LEITZA • NAFARROA
TEL. 948 510 346 • FAXA 948 610 962

OKINDEGIA - GOZOTEGIA
**EGVZKITZA**

B.º Erreka, 3 bajo - Telef. 948 51 06 14 LEITZA
Elbarren, 35 -Telef. 948 61 06 46 LEITZA
San Frantzisko, 24 - Telef. 943 65 00 41 TOLOSA

**ILEAPAINDEGIA**
**ARANTXA**

*Jai zoriontsuak*
*opa dizkizue*

Obispo Huarte, 8 tfno. 948 61 09 31
**31880 LEITZA (Navarra)**

TXARAGORRI

ITURGINTZA
FONTANERIA

Elbarren, 56
(Martikonea)

Leitza. Mobile
649 853 440

SAGARDOTEGIA - SIDRERIA
**ERREKA**
ERRETEGIA



B.º Erreka - Tel. 948 51 06 25 - LEITZA (Navarra)
(Estamos en la salida de la autovía dirección Leitza)



# MARGARI

Teléf. Móvil 608 87 30 16
Teléf. Domicilio 948 61 07 01

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

Taxia 24 orduko Zerbitzua
Servicio de Taxi 24 horas

31880 LEITZA (Navarra)

EXCAVACIONES Y CONSTRUCCIONES

# Gorritz S.L.

*Jai zoriontsuak opa dizkizue*

ERAIKUNTZAK

GORRITZ BASERRIA. 31880 LEITZA.
TLF: 610 212690, ETXEKOA 948 510570

# NAFARROAKO RURAL KUTXA
## CAJA RURAL DE NAVARRA

*Pesta onak pasa*

LEITZAKO BULEGOA

ELBARREN, 35

Faxa eta Telf.: 948 60 735

**Distribuciones ARRARAS** S.L.

EDARI BANATZAILEA
Viña Alcorta, Keler, Kas, Patxaran La Navarra
Polig. Ind. Eluseder - ARESO (Nafarroa)
Tel. Oficina 948 61 08 88 - Almacén 948 51 05 99

**FISIOETXEA**
**Ane Egizabal Llata**
**FISIOTERAPEUTA**

- ERREHABILITAZIOA
- OSTEOPATIA
- KIROL ETA ZIRKULAZIO MASAIA
- ERDITZE AURREKO / ONDORENGO TRATAMENDUA
  - MUTUAK
  - ASEGURUAK
  - PARTIKULARRAK

Ongi pasa San Tiburtzioak

948 510 730
Uharte Gotzaia 8-3. C - LEITZA

Hizkuntza hazia
mintzoaren lore
zazpi itxura eta
hamaika kolore.
Bizi nahian gabiltza
milaka landare
gure baratzakoa
al zara zu ere?

J.Sarasua
**LEITZAKO EUSKALTEGIA**
Tel. 948 610 776

**HYDRA GESPORT**
**gestión deportiva**
LEITZAKO KIROLDEGIA



**ARDI-GAZTA**
Gorritz
*Pesta alaiak pasa ditzagun errepresaliatuak gogoan ditugula*
XABIER SESTORAIN • GORRITZ BASERRIA • LEITZA 948 51 05 70

**PERITZA TABERNA**
*Pesta onak pasa denak*
Eibarren 23 - Tel. 948 610 848 - LEITZA

LEITZAKO UDALAK PESTA
ONAK OPA DIZKIZUE




# Pesta Alaiak

Opa bitartean,
gure erakusketa
ikus dezazun
konbidatzen zaitugu







Ikustazu obran hasi
baino lehen
zure komonaren
proiektoa
ordenagailuan!





Iturgintza Lanak
Kalefakzioa eta Gasa
Keramika

gaztelu

Landa Behikoa Industrialdea